Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

312

Azaroak 1, 2017

INDIDXABAK
Emakumeak oholtzara

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Aurrekontu parte hartzaileak
4 Bertsolari Txapelketa Nagusia
5 Berriak
6-7 Erreportajea: Lakaxita
8-9- Behobia - Donostia
10 Enpleguaren Astea
11 Haurren leihoa
12 Bertsoak / Gazteen lanak
13 Beti Gazte: Indidxabak taldea
14 Gazte informazioa
15 Agenda

JUAN JOSÉ GOROSTEGI ETXEBESTE

Pilotaria. Irunen jaio zen, 1868an. “Irun” ezinenez ezaguna, zesta pilotari onenetarikoa izan zen, garaian. Haurtzaro pobrea eduki zuen, gurasoak kolera epidemiaren ondorioz hil baitziren. Arrebari esker biziraun zuen, haien heriotzaren ondoren.

Abere-hiltzaile, egurgin eta errementari izan zen. Amerikara migratu behar izan zuen, eta adreilu fabrika batean aritu zen, pilotan jokatzeari utzi gabe; eskuz lehenengo, eta zestaz, ondoren. Buenos Airesen egin zuen debuta, eta txapeldun handi bilakatuta itzuli zen Argentinatik, Euskal Herriko eta Madrilgo frontoietan zaleen txalo zaparradak eraginez.

Haren boleak nabarmendu zituzten garaiko adituek, zorrotzak eta eleganteak baitziren. Jokoan zintzoa zela ere azpimarratu zuten. Aurrelari aritu zen, eta bikote bikaina osatu zuen Rekondorekin.

Irunen zendu zen, 31 urte zituela, 1899. urtean, besoan jaso zuen pilotakada batek eragindako gaixotasun baten ondorioz. Eibarren lurperatuta dago.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinuaren eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aurrekontu parte hartzaileetako hemezortzi proposamen onartu ditu udalak

Parte hartzeak gora egin du, iazko datuekin alderatuta

Urriaren 16an amaitu da udal aurrekontu parte hartzaileetan botoa emateko epea. Prozesu orokorrean, hamahiru egitasmo bozkatuenek jasoko dute partida ekonomikoa, 2018ko aurrekontuetan, 1.276.000 euroko kostuarekin (1,3 milioi eurokoa zen muga). Gazteei zuzendutako zazpi proiektutara, 216.000 euro bideratuko ditu udalak, kontuan hartuta, prozesu orokorrean soberan gelditu diren 24.000 euroak erantsi dizkiola.

Udalak baieztatu du parte hartzea %20,67 handitu dela, joan den urteko datuekin alderatuta. 864 parte hartzaile izan dira prozesu orokorrean, eta 716 izan ziren iaz. 3.103 boto eman dituzte, guztira, joan den urtean baino 816 gehiago. Gazteen prozesuan 96 parte hartzaile izan dira, iazko 78en aldean. Horrek %23,7ko igoera dakar. Gazteek boto gutxiago eman dute aurten, ordea. 243 izan dira, eta 347 joan den urtean. 16-30 urte arteko irundarrek parte hartu ahal izan dute prozesuan.

Datuen balorazio baikorra egin du Pedro Alegre Hiritarren Parte Hartzerako udal ordezkariak: "Parte hartzearen igoera nabarmendu nahi nuke. Ez da lehen edizioetako kopuruetara iristen, baina joan den urteko datuekiko emendatzea esanguratsua da. Gogora dezagun, aldaketa handiak izan zirela iaz, bozkatzeko Irun Txartela erabili behar izan zelako lehen aldiz, NANa beharrean".

Prozesuaren nondik-norakoak

Bi atal nagusi eduki ditu aurrekontu parte-hartzaileen prozesuak. Aurrez-aurreko hiru jardunaldi egon dira irailaren 13, 18 eta 21ean. Horietan, hiritarrek euren proposamenak egin dituzte. Ondorengo baldintzak bete behar izan dituzte proposamenek: urte betean egiteko modukoak, Irungo Udalaren eskumenekoak eta interes orokorrekoak izatea. Bigarren fasean, bozka eman ahal izateko, Irun Txartela erabili behar izan dute hiritarrek.

Prozesuaren inguruko polemika izaten da urtero, eta aurten ere, parte hartu nahi izan ez duenik ere egon da. Katea-Landetxa Auzo Elkarteak, ondorengo azalpena eman du: "Beste eredu bat sustatu beharko litzateke, non parte hartze zuzena eta eztabaida oinarrizko ardatzak izan beharko luketen. Ez orain gertatzen den moduan: kolektibo batzuen intereseko proposamenak bozkatzeko guda bat dirudi, herri osoaren interesentzat lehentasuna duten aztertu eta eztabaidatu gabe".

Datu zehatzak jasotzen dituztenean, analisi sakonagoa egingo dutela baieztatu du Pedro Alegre zinegotziak, hurrengo edizioei nola aurre egin aztertzeko. Beti ere, aurrekontu parte hartzaileak indartzeko proposamenak jasotzeko prest daudela nabarmendu du.

Prozesu orokorrean finantziazioa lortu duten proiektuak:

• Egoera ekonomiko txarrean dauden familientzako laguntza, haurrek oporretan ikastetxeetan jateko aukera izan dezaten: 20.000 euro (389 boto).
• Hiriko eskaintza kulturala sustatzeko aurrekontua: 150.000 euro (381 boto).
• Hiriko hainbat parke estaltzeko aurrekontua: 380.000 euro (335 boto).
• Artia auzoan igogailua egiteko aurrekontua: 450.000 euro (232 boto).
• Oinaurre eta Katea auzoak bidegorriz lotzeko egitasmoa: 60.000 euro (218 boto).
• Katea-Landetxa auzoa eta Txingudi merkataritza gunea bidegorriz lotzeko egitasmoa idaztea: 12.000 euro (207 boto).
• Artia auzoko kirolguneko zelaietako bat estaltzea, bertan eskubaloira edo saskibaloira jokatu ahal izateko (egitasmoa idaztea): 20.000 euro (157 boto).
• Hirian udal ehorztetxea eraikitzeko bideragarritasun teknikoko ikerketa idaztea: 25.000 euro (143 boto).
• Juncal plaza berritzeko egitasmoa idaztea: 100.000 euro (138 boto).
• Letxunborro etorbidean oinezkoentzako pasabidea egitea, botoidun semaforoarekin: 35.000 euro (102 boto).
• Iparralde hiribidean oinezkoentzako pasabide altua eraikitzea: 15.000 euro (79 boto).
• Behobiako autobuseko geltokia eta markesina Juan Thalamas Labandibar kalera lekualdatzeko ikerketa egitea: 3.000 euro (76 boto).
• Hiriaren sarreretan seinaleak jartzea, Ficobako parkina non dagoen azalduz: 6.000 euro (34 boto).

Gazteen prozesuan finantziazioa lortu duten proiektuak:

• Konexio hobeak izango dituen bidegorrien sarea, Irun osora zabalduz: 95.000 euro (45 boto).
• CBA liburutegiaren ordutegia asteburuetan eta azterketa aroan handitzeko proposamena: 19.000 euro (34 boto).
• Gazteen elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak handitzeko aurrekontua: 20.000 euro (33 boto).
• Gazteak haien kabuz bizitzera joateko laguntzak: 75.000 euro (24 boto).
• Adimen emozionaleko tailerrak egitea: 3.000 euro (16 boto).
• FIFA torneoa egitea: 2.000 euro (boto bat).
• Magic torneoa egitea: 2.000 euro (boto bat).

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11 IRUN 943.61.54.57
TABISA TANATORIO DEL BIDASOA
San Pedro kalea, 49 HONDARRIBIA 943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioa hartuko du Artalekuk

Finalerdietako bigarren hitzordua izango da azaroaren lehenean, Irungo kiroldegian

Goi mailako bertsolaritzaz gozatzeko aukera egongo da azaroaren lehenean, jai egunarekin, Irungo Artaleku kiroldegian. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdietako saio bat hartuko du, 17:00etatik aurrera. Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Maddalen Arzallus, Aitor Sarriegi, Aimar Karrika eta Unai Agirre ariko dira kantuan. Euskal Herriko Bertsozale Elkartea Irungo Udalarekin harremanetan jarri da, zuzenean, saioa antolatzeko. Hala ere, Irunabar bertsoaren bilguneko kideak boluntario lanean ariko dira Artalekun. Gainera, saioaren eta txapelketaren inguruan iritzia emateko ahots egokiena dira hirian.

2013an, azken Bertsolari Txapelketa Nagusian finalista izandako bi bertsolari ariko dira Artalekun: Maialen Lujanbio (2009ko txapelduna) eta Aitor Sarriegi. Haien lehen saioa izango da txapelketan, zuzenean sartu baitira finalerdietan. Beste lauak, finalista izan dira haien lurraldeetako txapelketetan. “Maila handiko saioa izan daiteke”, aitortu du Abel Zabalak. Txapelketa jarraitu du orain arte, eta uste du saio “politak” izan direla: “Ikusiko dugu, final laurdenetan ondo aritu diren batzuek, nola eutsiko dioten finalerdietako erantzukizunari, urduritasunari etab.”.

“Bertsolari berri batzuk indartsu sartu dira”

Adrian Arruti, Irunabarreko kidea

Bertso eskolako kide gazteenetakoa da Adrian Arruti, eta bertsolari belaunaldi gazteetan jarri du arreta, hain zuzen ere: “Uste dut batzuek aurrera pausoa eman dutela: Alaia Martinek, Miren Amurizak... Bertsolari berri batzuk indartsu sartu dira, Nerea Ibarzabal bizkaitarra, adibidez”. Txapelketaren hasieratik, bertsolari askok haien doinu propioak plazaratu izana bereziki deigarria iruditu zaio Arrutiri. Dena den, bertsolariek izan duten garapena batez ere, finalerdietatik aurrera ikusiko dela uste du. Bi itzuli izango dituzte finalerdiek, eta abenduaren 2an amaituko dira. Finala, abenduaren 18an izango da, Barakaldoko BECen, sei bertsolari onenekin.

Maialen Lujanbio da Irungo saiorako faboritoa, eta BECeko finalisten artean kokatu dute Zabalak eta Arrutik, ezbairik gabe. Aitor Sarriegi, Alaia Martin eta Unai Agirre, finalean sartzeko lehian ikusten dituzte, Sustrai Colinarekin, Aitor Mendiluzerekin, Igor Elortzarekin, Beñat Gaztelumendirekin edo Miren Amurizarekin batera. Kontuan hartu beharra dago, Amets Arzallus azken txapeldunak zuzenean finalean aritzeko txartela duela. “Abantaila da, baina erronka ere bai, ez baitu lehenago beste kontakturik edukiko txapelketarekin”, azaldu du Abel Zabalak: “Hala ere, horrelako egoera bat kudeatzeko gai da Arzallus”.

Txapelketa nagusiak dakarrena

Irunabarren konturatuta daude, eskualdean antolatzen diren bertso saioetara jende ezberdina gerturatzen dela, emanaldi bakoitza antolatzen duen entitatearen arabera. Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioak, bertsozale guzti horiek elkartzeko balioko duela uste dute. “Horrek ez du esan nahi, dena den, jendearen artean harremana sortuko denik”, zehaztu du, alabaina, Abel Zabalak. Bertsolari Txapelketa Nagusia Irundik pasa izanak egunerokoan beste eraginik izango ote duen ez dute argi ikusten. “Herri batzuetan, bertso eskoletan izaten da halako beroaldi bat, txapelketa nagusien bueltan. Azken finean, komunikabideetan oihartzun handia izaten dute”, adierazi du Zabalak: “Irunen ez dakit halakorik gertatuko ote den”. Adrian Arrutik, nolanahi ere, azpimarratu du bere taldean iaz lauzpabost lagun besterik ez zirela, eta aurten kopuruak gora egin duela, nabarmen.

Artalekuko hitzorduaren inguruko beste ekimenik ez da izango, eta pena du Zabalak, beste herri batzuetan egin izan baitira: “Bertsozale elkartea berandu jarri da gurekin harremanetan, duela bizpahiru aste”. Izan ere, saioa antolatzeko, Irungo Udalarekin eduki du harremana Bertsozale Elkarteak. Urte beteko elkarlanaren emaitza izan dela azaldu du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak: “Besteak beste, lan logistiko handia egin behar izan dugu, Artaleku kiroldegiko pista egokitzeko eta, horrela, 2.300 lagunentzako tokia eskaintzeko, harmailetan eta parketean bertan jarriko diren aulkietan”.

“Bertso eskoletan beroaldi bat izaten da, txapelketa nagusien bueltan”

Abel Zabala, Irunabarreko kidea

Sarrerak eskuratzeko bideak

Artalekuko saiorako sarrerak jaso ditu Irunabarrek, eta bailarako elkarte ezberdinen artean banatu. Udalak, 100 jarri ditu salmentan, Luis Marianoko turismo bulegoan. Internet bidez, www.bertsosarrerak.eus web gunean eros daitezke, eta soberan geratuko balira, Artalekuko leihatiletan bestela, azaroaren lehenean 15:00etatik aurrera. 15 euro balio du sarrera orokorrak, eta 8 euro gazteenak. Bertsozale Elkarteko bazkideek 12 euroren truke eskuratu ahal izango dituzte.

“Xenpelar dokumentazio zentroan arakatzen ibili naiz, eta Irunen txapelketa nagusiko saiorik ez dut topatu”, aitortu du Abel Zabalak. Gipuzkoako Txapelketakoak, aldiz, hartu izan ditu hiriak, Amaia Kultur Zentroan, eta Artalekun ere bai. 2003an, Gipuzkoako Txapelketako finala izan zen, eta Maialen Lujanbiok irabazi zuen. Emakumeei eskaini zien hernaniarrak garaipena, Artalekun bildutako jendetzaren aurrean:

"Txirrita ez baina orain neretzat kolpeak ta igurtziak/ hainbat jasoko ez dituztenei, muxuak ta goraintziak/ muxuak bertso-eskolakoei, Juanjo Urian bitxiak/ honen zati bat ere badute lagun minek ta etxiak/ baina behin behar ta omendu behar gaur emakume guztiak/ ta bereziki zernahi bidetan aritu ziren gutxiak/ gizarte honek beren ametsen erdibidean utziak".

Hasiberriek ere ahozko euskara landu dezakete, Elkarrizketariak programarekin

Azaroan hasiko da aurtengo Elkarrizketariak programa. A1 eta A2 mailako euskara ikasleei zuzendua dago, haiek ere ahozkoa praktikatu ahal izan dezaten. www.irun.org/euskara atarian eman daiteke izena.

Parte hartzaileak hamabostean behin bilduko dira, mintzamen saioak eta tailerrak euskaraz egiteko, dinamizatzaile talde baten eskutik. Mendi irteerak, sukaldaritza edo argazkilaritza tailerrak, antzerkiak, afariak eta bestelako ekintzak burutuko dituzte.

Jende askorentzat, lagun euskaldunak egiteko modua ere bada, taldetik kanpo ere euskaraz bizitzeko aukera emanez. Adin guztietako parte hartzaileak egoten dira. Informazio gehiago lortzeko, 943 505274 telefono zenbakira dei daiteke.

Maila handiagokoentzat, Mintzalaguna

B1 mailatik gorako ikasleek ere badute euskara praktikatzeko aukera, Mintzalaguna egitasmoari esker. Astean behin biltzen dira horiek, bospasei laguneko taldeetan. “Beraiek erabakitako tokian eta orduan biltzen dira. Zerbait hartu, paseo bat eman, edozein ekintza egiten dute, baina beti euskaraz eta giro onean", azaldu du Josune Gomez Euskara arloko ordezkariak.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia antolatu du AEKk

Borobilean emanaldi berria eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek eskualdean, Bidasoko AEKk antolatuta. Lehen saioetariko bat izango da Euskal Herrian, eta Hondarribian egingo dute, Hondartza kiroldegian, azaroaren 19an, igandearekin. Bi saio izango dira, arratsaldeko 16:00etan bat, eta 18:30etan bestea.

Zortzi euro balio du sarrerak, eta haurrek ordaindu beharko dute, baita bi urtetik beherakoek ere. AEKk Irunen duen euskaltegian eros daitezke sarrerak, astelehenetik ostiralera (Legia kalea, 6). Bestela, Hondarribiko turismo bulegoan ere eskura daitezke, Arma Plazan edo Kirol Kaian.

Bizikidetzaren inguruko hausnarketa eskaintzen du *Borobilean* emankizunak. Borobilean eseriko dira protagonistak, begiak eta bihotzak elkarri begira: arauak ezarri, ardurak hartu eta banatu, antolatu, nork bere lekua hartu, pozak, minak eta desirak elkarri kontatu, errespetua landu, elkar ulertzen saiatu, erabakiak hartu... Eman, jaso eta moldatu, bizikidetzaren sokatan funanbulista bihurtu araziko dituzte ikusleak.

Berriro okupatu

Jarduera zerrenda zabala aurkeztu du Lakaxitak, hausnarketa eta eztabaida prozesuaren ondoren

Indartsu ekin dio Lakaxita gune autogestionatuak ikasturteari. Irekiera jaialdia egin dute urriaren 12an, txotxongiloekin, barbakoarekin eta kontzertuekin. Urrian zehar, ekonomiaren inguruko hitzaldi ziklo bat, eta zientzia fikzioari buruzko bi zineforum antolatu dituzte. Gainera, urte osoko ekimen iraunkorrak ere martxan dira. Iker Eizagirre Lakaxitako asanbladako kideak onartu du urte berezia dela haientzat: "Iaz barne eztabaida asko eduki genituen, eta horregatik, beharbada, kanpora begira proposamenak egiteko gaitasun eskasa eduki genuen". Jone Fernandezekin batera erantzun die Eizagirrek galderei, eguraldia lagun, eta kafea eskuetan, Lakaxitaren atzealdeko terrazan.

Nondik sortu dira Lakaxitako barne eztabaida horiek?
IKER EIZAGIRRE: Laster hamahiru urte beteko dira Irungo gazte talde batek gune hau okupatu zuenetik. Egia da, azken lauzpabost urteetan, aldaketa handiak egon direla Lakaxitan, eta horien inguruan hausnartzeko momentua iritsi da. Noizbehinka burua altxa beharra dago, zer egin dugun pentsatzeko, eta norabidea ez galtzeko.

Zertan aldatu da Lakaxita?
I.E: Lakaxita proiektuaren hasierako bultzada izan zen gazteei eskaintzen zitzaien aisialdi eredua kontsumoan eta kotsumismoan oinarritua zegoela: Mendibil merkataritza gunea ireki zuten, Txingudi bete-betea egoten zen. Garaiko gazteak, aisia autogestionatzeko praktika galtzen ari ziren.

Horren aurrean, espazio baten beharra ikusi zuen gazte talde batek. Lehen Jaion festa prestatu zuten, eta eraikin hau okupatu. Luzaroan, autogestioaren praktika aisiaren esparruan gelditu da. Denbora pasa ahala, aukera bat zen beste belaunaldi gazteago batek lekukoa hartzea, eta aisialdiaren kudeaketarekin aurrera jarraitzea. Ez zen gertatu, eta hasierako kolektibo horrek, autogestioaren eredua bizitzako beste esparruetara zabaltzeari ekin zion. Horrek, barne kontraesan asko sortu zituen.

Zergatik?
I.E: Lakaxitaren inguruan kooperatibak sortu dira, adibidez, bertako kideek autogestioaren logika jardun profesionalean ere aplikatu nahi izan dutelako. Horrek, erakundeekin eta bestelako entitateekin kontaktuak sortu ditu: diru-laguntzak, kontratuak udalarekin, harremanak Mondragon Unibertsitatearekin etab. Guzti horrek tentsioak sortu ditu, eta hausnarketaren beharra eragin.

Zaila izan al da bilakaera prozesu hori?
JONE FERNANDEZ: Oso zaila, eta gogorra. Barne eztabaida handiak eduki ditugu. Hala ere, merezi izan duela uste dut. Akatsak, edo autokritikarako erabilgarriak izan daitezkeen ekintzak eta gertaerak egon dira. Baina garrantzitsuena da proiektuari eutsi diogula, eta esango nuke egin dugula, gure beharren arabera aldatzea lortu dugulako.

Leku askotan ikusi dugu patroi berdinak denbora luzez mantentzen baldin badira, halako proiektuak amaitzen direla. Gaztetxe asko itxi dituzte, ez desalojo bategatik, barruko jendea aspertu egin delako baizik.

Oso interesgarria da egin dugun bilakaera, eta gaur egun dugun funtzionamendua. Nola jarraitzen dugun balio filosofiko berdinekin, baina balio horiek errealitate bilakatzeko modu ezberdinak sortuz. Ez dut uste hasierako ideiei traizio egin diegunik.

Zeintzuk dira ideia horiek? Nola ulertzen duzue autogestioa?
I.E: Jende talde batek dituen behar eta desira komunak asetzeko, denen artean bildu eta antolaketa eta baliabideak martxan jartzea. Guzti hori, funtzionamendu demokratiko eta horizontal batekin. Kultur munduan, elikaduran, lan munduan etab.

J.F: Batzuetan, ekologista, feminista edo horrelako hitz potoloek jendea beldurtzen dute. Baina azken finean, bizitza bizigarriago egingo duen eredua bilatzen dugu. Gu hemen bizi gara, hemen bizi nahi dugu. Orduan, zer egin dezakegu toki hau bizigarriago egiteko? Hori da gure filosofia.

Jardun profesionalari lotuta, Lakaxita Koop enpresa hazitegia sortu duzue. Zein helbururekin?
I.E: Edonork, bere lana autogestioan oinarritutako modu batean kudeatu nahi baldin badu, Lakaxitan izan dezake lehen espazioa eta aholkularitza. Maila ekonomikoan, ere, eredu autogestionatu, horizontal eta demokratiko bat sortzeko ahalegina da.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Azken urteetako beste lan ildoetako bat, elikadurari lotutakoa da.
I.E: Hemen hasieratik egiten ziren jarduerekin lotuta dago, jantoki begetekin, adibidez. Lehen hausnarketa horietatik, praktikara jauzia egiteko beharra ikusi zen. Zein da elikadura burujabetza kudeatzeko modurik onena edo zuzenena? Bada, elikadura bera ekoiztea. Horrela, beste toki batzuetan zeuden ereduak jarraituz, lehen baratze kooperatibak sortu ziren. Ondoren, beste pauso bat emateko beharra etorri zen: baratzak ematen ez dituen produktu ez freskoak kudeatzen saiatzeko beharra. Horrela sortu zen Txingudi Labore. Elikadura burujabetza praktikan jartzeko urratsak izan dira denak.

Zer nabarmenduko zenukete, aurtengo berritasunen artean?
I.E: Etorkinekin eta kulturartekotasunarekin lanketa oso bat egiten ari gara. Harreman zuzen bat sortzen ari da, batez ere, latinoamerikako komunitatearekin. Indoamerika Herria elkarteak aholkularitza juridikoa eskainiko du ostegunetan, 9:30etatik 15:30etara. Ostiraletan, elkarbizitza egunak egingo dituzte.

Horrekin batera, euskara klaseak eskainiko dira, Indoamerika Herriak eskatuta. Latinoamerikako herrietatik datorren jendeak sentsibilitatea du hizkuntza gutxituekiko, han ere badirelako. Euskararekiko begirune bat dute, eta ikasi nahi dute.

J.F: Harreman hori oso emankorra izan daitekeela iruditzen zait. Erronka zaila izaten ari da haiekin ekintzak antolatzea, oso kultura ezberdinetatik gatozelako. Baina oso ederra da halako elkarlan bat aurrera eraman ahal izatea.

Gure helburu nagusien artean dago espazioa irekitzea, jatorri eta adin tarte ezberdinetako jendeari. Haurrekin saiakera egiten ari gara, urriaren 12an txotxongilo saio bat eskaini genuen.

Ez al duzue uste belaunaldi gazteagoekin deskonexio bat izan dela?
I.E: Egia da belaunaldi gazteekin lotura galdu dugula, eta hori faltan botatzen dugu. Gazte belaunaldi batzuentzako erreferentzia izan gara urtetan, baina ez dugu lortzen belaunaldi berriekin konektatzea. Haientzat, gune hau ez da erreferentea. Antolatzen ditugun ekimenetara erakartzeko zailtasunak ditugu.

J.F: Urte asko daramatzagu hemen, eta asko atondu dugu, kanpotik eta barrutik. Gogoratu hau hondakindegia zela, eta txikituta zegoela, barrutik eta kanpotik. Orain, jende askoren etxea baino hobeto dago Lakaxita. Alde horretatik, oso propio sentitzen dugu. Funtzionamendu bat dugu, idatzita ez dauden arau batzuk, eta horiek hausteari beldurra diogu, nolabait. Baina gure erronka da Lakaxita berriro okupatzea. Gure konfort eremuan ez dagoen jendea erakartzea, eta proposamen berrietara zabaltzea.

Eraikinaren beraren etorkizuna ere kolokan egon izan da, behin baino gehiagotan, San Miguel-Anaka proiektuari lotuta. Zertan gelditu da?
I.E: Proiektuak oso erritmo motela eduki izan du beti. Udalak Lakaxitaren lursaila erosi zuenean, eraikinaren egoera kontsolidatzeko aukera sortu zen, inguruan zeuden beste batzuekin egin zen bezala. Are gehiago, jakinda, udalaren planoen arabera, hemen ez dutela etxebizitzarik eraiki behar, jardin batzuk baizik. Haien erantzuna ezezkoa izan zen, baina esan ziguten momentuz lasai egoteko, obrak luze joko duelako.

Gure asmoa da udalarekin komunikazio kanal zuzen bat edukitzea. Azken urte eta erdian ez dugu gehiago hitz egin, baina guk horretarako asmoa dugu, zein aukera dagoen ikusteko. Nik argi dudana da hemen sortu den bizitzeko beste eredu honek jarraipena izan behar duela, hemen ez bada, beste toki batean. Lakaxita ez da eraikina bakarrik, bere inguruan sortu den guztia baizik.

Beroa da Behobia-Donostiako arrisku faktore handiena

Lotura zuzena dago tenperaturaren eta mediku asistentzia kopuruen artean

Kirolaren inguruko festa handia izaten da Behobia-Donostia, errepidean eta espaloietan izaten den giro apartagatik, eta lasterketaren inguruan sortu diren ohiturengatik. Tarteka, alabaina, itzal handi batek estaltzen du proba. 2002.urteaz geroztik, lau hildako utzi ditu Irungo Behobia auzoa eta Donostia lotzen dituen 20km-ko lasterketak. Azkena, 2015ean. Heriotza bakoitzaren ondoren, zurrunbilo mediatiko handia sortzen da, ohiko eztabaida bat mahai gainean jarriz: izena ematerakoan mediku azterketak eskatzeko aukera. Frantziako Estatuan, adibidez, derrigorrezkoa da.

2016an, mediku batzorde bat osatu zuen Behobia-Donostiak, mundu mailan gaiaren inguruan dagoen ezagutza azter zezan. Ikerketa horren emaitzen berri eman du Felix Zubia Donostiako Unibertsitate Ospitaleko medikuak, Iñigo Etxeberria Behobia-Donostiako koordinatzailearekin, Uxue Fraile mendi lasterkariarekin eta Arantxa Errazkin Bidasoa ESIko mediku eta kirolariarekin batera, urriaren 6an Donostiako San Telmo Museoan. Ondorio nagusia da bero-kolpea dela heriotzen eragilea, eta erritmoa jaistea, prebentzio neurri onena. Azaroaren 12an izango da, aurten, Behobia-Donostia.

18.000 parte hartzaile eduki zituen Behobia-Donostiak 2007an. 2015ean, 33.000ra iritsi zen. Ia bikoitza, zortzi urteko epean. Agerikoa da garapen ikaragarria jasan duela Fortuna Kirol Elkarteak antolatzen duen probak, azken hamarkadan. Inguruan tradizio handia eta zaletu asko zituen herri lasterketa izatetik, estatu osoko eta nazioarteko parte hartzaileak erakartzen dituen kirol ekitaldi erraldoi bilakatzera pasa da. Antolakuntzan ere, aldaketa handiak egin behar izan dituzte, denbora tarte laburrean: izenemateetan, irteeran, ibilbidean... Baita mediku asistentzian ere.

Felix Zubia Donostiako Unibertsitate Ospitaleko medikuak hamalau urte daramatza helmugan korrikalariak artatzen. Behobia-Donostia, Gipuzkoako osasun zerbitzuarentzat, eguna, tokia eta ordua dituen "katastrofea" dela adierazi du. Azken hilabetean Karibe aldea gogor kolpatu duten urakanekin konparatu du: "Iaz, helmugan bakarrik, 445 asistentzia eduki genituen, toki berean". 30 mediku, 50 erizain, 100 teknikari, anbulantzietako 30 langile... "Horrelako dispositibo gutxi daude munduan", baieztatu du Zubiak. Hala ere, ezbeharrak gertatzen dira Behobia-Donostian. Ezinezkoa da dena kontrolpean edukitzea.

2015ean, 31 urteko gizonezko bat zendu zen, Behobia-Donostian parte hartzen ari zela. Helmugara iristear zegoenean zorabiatu zen, eta Donostiako Ospitalean hil zen. 2013an, 30 urteko emakumezko bat hil zen, 2010ean, 40 urteko gizonezko bat, eta 2002an, 23 urteko beste bat. Denak gazteak, denak lasterketako azken kilometroan bihotza geldituta. "Eztabaida handiak sortu izan dira bakoitzaren ondoren: prestaketa baxua zela, edo mediku azterketen beharra zela", azaldu du Iñigo Etxeberria Behobia-Donostiako koordinatzaileak: "Baina zurrunbiloa pasata, datuak bilduta eta konparatuta, konturatzen ginen kontraste handia zegoela jendearen iritzi orokorrekin".

Beroaren ondorioak

2015eko edizioaren ondoren, mediku batzorde iraunkor bat eratu zuen Behobia-Donostiako antolakuntzak. Mundu mailan gaiaren inguruan egin izan diren ikerketak bildu, aztertu, eta lasterketako datuekin alderatu dituzte. Ondorioak argiak direla aipatu du Felix Zubia batzordeko kideak: "Bihotzeko arazoak oso bakanak dira, gezur handia saldu digute. Arazo handiena, bero-kolpea da". Behobia-Donostiako estatistikak hartuta, agerian gelditzen da, bero handieneko edizioetan, asistentzien kopurua askoz handiagoa dela. 2015ean, azken heriotzaren urtean, 2ºkoa izan zen azaroko tenperatura minimoa. Lasterketaren egunean, aldiz, 28ºra iritsi zen termometroa.

Estatistikei begira, ebidentea da tenperaturaren eta asistentzia kopuruen arteko harremana. Tenperatura altuekin, gora egiten dute, nabarmen. Hezetasunarekin kontrakoa gertatzen da. "Noiz dago hezetasun gutxien, hemen? Hego-haizearekin. Orduan, bero handia egiten du", argudiatu du Zubiak. Beroarekin lotuta, oso ohikoa da entzutea ur asko edan beharra dagoela. Medikuak, alabaina, ideia hori ukatu egin du: "Batzuetan, gehiegi edatea ere txarra izan daiteke, sodio faltagatik arazoak sor daitezkeelako. Bero kolpea ez da deshidratazio kontua".

Zerk eragiten du, hortaz, heriotzen arrazoi izan den bero-kolpea? Gehiegizko erritmoari egotzi dio Felix Zubiak: "Markari gehiegi begiratzen zaio. Ez genuke erlojuari begira korrika egin behar, pultsometroari begira baizik". Kultura oso bat dago gure inguruan, Behobiako denborari dagokionez. "Maratoi erdiko denborak ez dira erreferentzia, hemen, Behobiakoak bai", gogorarazi du Iñigo Etxeberriak. 2015eko edizioan, termometroak 25 graduak gaindituko zituela ikusita, behin eta berriro errepikatu zuen Joseina Etxeberriak, irteerako megafoniatik, ez zela markak egiteko eguna izango. "Baina jendea itsutu egiten da", penatu da Zubia.

Bero handia egiten duen egunetan, denbora galera oso txikia da, korrikalarientzat, lasterketako lehen kilometroetan. Galera progresiboa da, baina biderkatu egiten da, azken hiru kilometroetan. Tarte horretan izaten dira asistentzia gehien, hain zuzen ere. Heriotzak, azken kilometroan gertatu dira. "Ikusleei esango nieke, korrikalari bat Kursaalean gaizki ikusten baldin badute, ez animatzeko bukatzera", luzatu du medikuak. Itsutze horrekin lotu du, Zubiak, emakumeen parte hartzeak gora egin duen urteetan, ezbehar gehienak gizonezkoei gertatu izana: "Fisiologikoki berdin eragiten die, baina psikologikoki ez. Emakumezkoak, gaizki doazenean, gelditu egiten dira". Gizonezkoek lehiarako heziketa handiagoa jaso dutela argudiatu du Iñigo Etxeberriak. Uxue Fraile korrikalariak ez du uste emakumezkoek markak bilatzen ez dituztenik, baina iruditzen zaio arriskuarekiko kontzientzia handiagoa dutela: "Ikerketa bat egin beharko litzateke, aztertzeko emakumeok zergatik ez garen iristen pajara edukitzera".

Herri lasterketa?

Felix Zubiak azpimarratu du, beroaren aurrean, mediku azterketek ez dutela onura berezirik ekartzen: "Oso baliagarriak dira, baina esatea horrek heriotzak ekiditen dituela, gezurra saltzea da". Parte hartzaileei informazioa eskaintzeaz gainera, beste neurri bat hartu du antolakuntzak, screening programa, hain zuzen ere. Iñigo Etxeberriak eman ditu azalpenak: "Test erraz bat egitea proposatzen dugu: zeinu eta sintomen galdetegia, prestakuntzari eta bihotzeko gaitzei buruzkoa da. Erantzunen arabera, aholkuak ematen ditu. Eta aurten, oraingoz, izena emandakoen %6 soilik bidali du medikuarenera".

Eguraldiaren iragarpenei begira daude, beraz, Behobia-Donostiako antolakuntzan. Zer egingo lukete, 25ºtik gorako tenperaturak esperoko balituzte? "Lasterketa bertan behera uztea kaosa litzateke", uste du Etxeberriak: "Baina pentsatu duguna da denborak, sailkapena, baliorik gabe uztea". Izan ere, denborek eta postuek duten pisuagatik, lasterketaren herrikoi izaera ere zalantzan jarri izan da. Uxue Frailek ez du uste Behobia-Donostia herri lasterketa denik. Felix Zubari ere, iruditzen zaio herri lasterketa batek oso bestelakoa beharko lukeela izan: "Lagunekin ondo pasatzeko egun bat izan beharko luke. Ondo prestatuta egitekoa, prestaketaz ere gozatu ondoren". Lasterketak hartu duen norabidea ikusita, ordea, zaila dirudi halako filosofia orokorra zabaldu ahal izatea.

Bostehun lagun gerturatu dira Enpleguaren Astera

XX.edizioa bete du Bidasoa bizirik garapen agentziak antolatzen duen ekimenak

Ficoban urtean bi aldiz antolatzen den azoka da Enpleguaren Astea. Langabeak edo beste lanpostu baten bila ari diren pertsonak enpresekin harremanetan jartzea du helburu. "Langileen eta enpresen arteko bitartekaritza lana egiten dugu", adierazi du Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko presidenteak. Urriaren 26an izan da azken edizioa, 9:00etatik 14:00etara, Ficoba erakustazokan.

500 lagun hurbildu dira, oraingoan, haien curriculumak eskuetan. Maiatzeko edizioan 700 izan ziren, udarako kanpainari begira. Parte hartu duten enpresek eta formazio zentroek, haien eskaintzaren berri eman zuten aldez aurretik, urriaren 17an, www.elespazio.com web gunean. Guztira 32 entitate publiko eta pribatu izan dira.

Hiru espazio egon dira azokan. Lehenengoa, hautatze enpresa eta entitateei eskainia. Bertan, interesa zuen edonork enpresen eskaintzak ezagutu ahal izan ditu, aldez aurretik izena eman beharrik gabe. Enpresek curriculumak jaso dituzte, eta elkarrizketa pertsonalak egin. Gune horretan egon dira, besteak beste, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua, eta Lanbide-Eures, atzerrian lan egiteko aukerak eskainiz.

Bigarren espazio batean, eskualdeko formazio zentroek lekua izan dute, enplegurako eta formaziorako duten eskaintza aurkeztu ahal izan dutelarik. Azpimarratzekoa da azokaren mugaz gaindiko izaera, Pole Emploi Frantziako enplegu zerbitzu publikoa, eta Iparraldean enpresen eta langileen arteko bitartekaritza lana egiten duten zenbait enpresa egon baitira.

XX.edizioko berritasun nagusia, Linkedin sare sozial profesionalari eskainitako espazioa izan da. Teknikari aditu baten eskutik, haien indarguneak nabarmentzeko gakoen berri izan dute gerturatu direnek. Curriculumak eguneratzeko aukera ere eduki dute, gainera. "Lan merkatua etengabe aldatuz doa, eta gure lana da aldaketa horietara ahalik eta modu onenean egokitzea", argudiatu du Juan Mari Altuna Bidasoa bizirik-eko presidenteordeak.

Adin eta profil ezberdinetako jendea hurbildu da

Angel Arroyok 50 urte ditu, eta bost daramatza langabezian. Adin horretan lana topatzeko izaten diren zailtasunak gorabehera, itxaropena du: "Hiru elkarrizketa egin ditut, eta enpresa horientzat hautagai interesgarria izan naitekeela uste dut". Maria Jesus Cangas ere adin tarte horretan dabil, 47 urte ditu, eta urtero hurbiltzen da azokara: "Gaur lau elkarrizketa egin ditut, zerbitzari eta garbitzaile lanpostuetarako".

Sara Bidaurretak, aldiz, 22 urte ditu, eta bere lehen enpleguaren bila jo du azokara. Ez du lehentasun berezirik. Ficoban emandako goizaren balorazio baikorra egin du: "Azoka antolatzea ideia ona iruditzen zait, langabezian gaudenontzat, enpleguren bat topatu ahal izan dezagun". Behe Bidasoko, Oarsoaldeko, Donostialdeko eta Iparraldeko enpresen eskaintzetarako hautagaitzak aurkeztu ahal izan dituzte gerturatu direnek.

Toki Alai LH2

TOKI-ALAI ESKOLAKO 3. ETA 4. MAILAKO IKASLEEK, MATEMATIKA ARIKETATXO HAUEK PRESTATU DITUGU.

EA ERANTZUNAK ASMATZEN DITUZUEN!!!

Hurrengoak bete honako argibideak kontuan izanik.

- 5 urte dituen mutilak Nerea deitzen da.
- Besten ari diranak adin bera dute.
- Pizza duten pertsonak 18 urte dituzte.
- Soldadoan lanari duen mutila Ander deitzen da.
- Garagarra jamisela duen mutilak Jon deitzen da.
- Nagusiak lanean daraman.

5 urte

Lotu itzazu emaitza bereko borobilak.

7×6 · 100-95 · 200+107 · 12:6 · 6-4 · 400-93 · 35-30 · 30+12

Hodei kakotza azpian dituen lerro bien arteko liderkadura da. Kalkulatu falta diren kalkoak:

IRUNABAR
BUNGO BERTSOAREN BEGUNEA

ESPAINIA

Bertsoak: Egoitz Zelaia
Doinua: Kideari (Mikel Urdangarin)

1.
Kuba, Antillak, India,
Puerto Rico, Kanbodia,
Haiti, Ekuador, Burgia,
Jamaika, Oman, Mahdia,
Peru, Panama, Indonesia,
Portugal, Iran, Santa Luzia,
Guatemala, Bolibia,
Tunez, Angola, Timor, Sahara,
Uruguai, Brasil, Txile, Granada,
Puerto Rico, Kolonbia.

2.
Nork ez zituen ikusten
Argentina odolusten,
besteen sakela husten
eta beraiena puzten?
Guinea, Antigua eta Barbuda,
Maroko, Bahamak, Taiwan, Aruba,
erraz jantzi eta biluzten.
Turkiar Irlak eta Kaikos,
Algeria, Tetuan, Tanger, Barbados,
...
odolez hartu zituzten.

3.
Mexikok zuen ondare
ia guziaren jabe
egin eta dohakabe
orain ere harro daude.
Venezuela ere hor dago,
edo Trinidad eta Tobago,
Paraguai, Somalian pare.
Euren bandera, eta soldadu,
Espainiak ez du gerrarik galdu
odolik isuri gabe.

4.
Historiak gogoeta
eragiten du tarteka.
Katalunia dela eta,
dela Irak, dela ETA.
Hauen kasuan Espainiako
monologoak ez duelako
egiten elkarrizketa.
Beti antzera amaitzen dugu
inpotentzia-nekez mukuru
eta kaleak beteta.

5.
Nahiz ta batzuk gogor ari
presionatzen aspaldi
hel diezaion hitzari
eusten dio bereari
burua zurrun, eskuak estu.
Lehendik handia den horrek ez du
izan nahi bat eta handi.
Alferrik dira hainbeste saio
maiz itsasoa eskaintzen zaio
urik nahi ez duenari.

6.
Orain predikuz prediku
zapaltzaile izpiritu
haren odol esplizitu
hura nola defenditu?
Hurbilekoak, zein indigenak,
anikilatu zituen denak.
Ez zuen deus deskubritu.
Onartu gabe behin hildakoak,
oraindik ere, egindakoak
ospatu egiten ditu.

7.
Nonbait, behar den unean,
hitza dagokizunean,
neurtzen zara berunean
eta ez begirunean.
Historia maiz dugu testigu
zer garen berak erraten digu
gure argi-ilunean,
eta zuk argi bezain burutsu
maite zaitzagun eskatzen duzu
gorroto gaituzunean.

Hirubide DBH

Espagetiak Karbonara erara

Osagaiak:

- Espagetiak
- Esnegaina
- Piper hautsa
- Gazta
- Gatza
- Hirugiharra
- Olioa

Prozedura:

1-Ura eta olioa irakiten jarri eta espagetiak bota.
2-Esnegaina eta olioa irakiten jarri eta gatza bota.
3-Elltzeari piper hautsa eta gatza bota.
4-Dena prest dagoenean platerean jarri eta hirugiharra zatitan erantsi.

ON EGIN!!!

Egileak:Jone,Javi,Amy

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Aurreiritziak apurtuz

Urte bete darama Indidxabak taldeak, formazioa egonkortuta, bere rock doinuak eskainiz

Rock taldeetan emakumeak topatzea ez da ohikoa izaten. Baina soilik emakumeez osatutako taldeak ikustea, benetan zaila da, gaur egun. Salbuespen horietako batekin gozatu ahal izan dute Irungo MEK jaialdiko ikusleek, urriaren 22an, Urdanibia plazan. Indidxabak talde irundarra ezusteko atsegina izan da jende askorentzat. "Emakumezkoek osatutako taldea eratzeko gogoa nuen. Militantzia kontua da, nolabait", aitortu du Ane Odriozola abeslariak.

2015 urtearen hasieran sortutako taldea da Indidxabak, baina egungo formazioarekin, urte bete besterik ez darama. Emanaldi sorta egin du, hala ere. Urrian, esaterako, hiru kontzertu eduki dituzte, Mundakan, Irungo Lakaxitan, eta MEK jaialdian. "Gero eta erosoago gaude eszenatokiaren gainean", azaldu du Ana Calderón baxu jotzaileak: "Garapen bat egon da, taldearen kohesioari dagokionez". 2016ko udazkenean sartu zen Calderón taldean, Helena Benet bateria jotzailearekin batera. Base erritmikoa aldatu zuen orduan Indidxabak-ek, taldearen sorreran izandako zailtasunei aurre egiteko.

Atzera begiratu du Ane Odriozolak, hasiera hura gogoratzeko. Ana Ayneto gitarra jotzailearekin sortu zuen Indidxabak. Irungo musika eskolan elkarrekin aritzen ziren. Gitarra klasikoa jotzen du Aynetok, baina elektrikoarekin probatzera animatu zen. "Uste dut ukitu hori antzematen dela, gure konposizioetan", onartu du Odriozolak. Lehen bateria eta baxu jotzaileak lortu zituztenean, abestiak osatuz hasi ziren. Hasiera konplikatua izan zela adierazi du, hala ere, Ane Odriozolak: "Bateria jotzailea flautista zen, eta baxu jotzailea, kantaria. Inork ez zuen bere instrumentua menderatzen".

Gutxieneko errepertorio bat osatzea lortu zuten, dena den, eta lehen kontzertuak emateari ekin zioten. Ez zituzten gehiegi bilatu, baina lehendik musika taldeetan ibiliak ziren, eta bazituzten horren beharrezkoak diren kontaktuak. Orduan, taldeari denbora gehiago eskaini edo ez erabakitzeko unea iritsi zen. Eztabaida horren ondorioz etorri ziren aldaketak. "Bateria eta baxu jotzaileak behar genituen, eta musika eskolara jo genuen", aipatu du Odriozolak. Han topatu zituzten Ainara Calderón eta Helena Benet. Bateria jotzaileak ilusio handiz hartu zuen aukera: "Bateria jotzen hasi nintzenetik, askotan pentsatzen nuen zeinen ederra izango zen emakumeez osatutako talde bat sortzea".

Egonkortzeko bidean daude

Taldekide berriak sartu zirenean, abestiak moldatuz hasi ziren, eta errepertorioa handituz, ondoren. Soinu osoagoa dute orain, sendoagoa. Ane Odriozolak azaldu du rocka jotzen dutela, nahiko tenpo motelekin. Baina ez diotela haien buruari mugarik jartzen, konposatzerako orduan. Benetek uste du nahiko anitza dela haien musika: "Abestiaren arabera, estilo batera edo beste batera jotzen dugu. Rock astunetik, doinu dantzagarriagoetara".

Ahotsak protagonismo handia duela ere nabarmendu daiteke. Izan ere, kantu klaseetara joan izan da, urtetan, Ane Odriozola. Hitzen idazlea ere bada: "Askok zer ikusia dute emakumeon arazoekin, gorputzak hala eskatzen didalako. Nahiko introspektiboak direla esan daiteke. Egia da ateratzen zaizkidan hitzak ez direla oso zehatzak". Ados daude taldekideak, eta ezaugarri positibotzat dute, gainera. "Mezua dute, indartsuak dira. Batzuetan esanahia ez dago horren argi, nahiko poetikoak direlako hitzak, arretaz entzutekoak, pentsatzekoak", adierazi du Calderonek. Erantsi du ez direla komertzialak. "Izango balira ere, ez legoke gaizki", moztu du Odriozolak, barrez.

Musikaren munduko matxismoari aurre eginez

Lehen maketa grabatzea gustatuko litzaieke, erakusteko moduko zerbait edukitzeko. Inguruko jendeak eskatzen die, eta momentuz, kontzertu batzuetako bideo pare bat besterik ez dute. Kritikei dagokienez, denetarik jaso izan dutela baieztatu dute. Baikorrekin gelditu nahi duela esan du Ainara Calderonek, batzuk ez direlako oso eraikitzaileak izan. Zentzu horretan, matxismo puntu bat dagoela iradoki du Ane Odriozolak: "Kritika guztiak ez dira berdinak, eta nire beste taldeekiko diferentzia nabaritu dut, alde horretatik".

Emakumezkoek soilik osatutako taldea sortzea erabaki kontzientea izan dela argudiatu du Indidxabak taldeko abeslariak: "Talde batean mutilak eta neskak daudenean, jendearen joera da pentsatzea gauza garrantzitsuenak mutilek egiten dituztela. Horregatik, gure lanari benetako balioa emateko, potentea iruditzen zait taldekide guztiak emakumezkoak izatea". Gizonezkoekin musika taldea eratzea askoz errazagoa izango litzatekeela uste du Ane Odriozolak. Alde batetik, gizonezko musikariak gehiago direlako. Emakume sortzaileek haien lanak zabaltzeko dituzten oztopoak salatu ditu, bestalde: "Erraztasuna dugu diziplinatzeko, pila bat ikasteko, eta gauza onak egiteko. Baina gero, horiek plazaratzeko, traba handiak ditugu. Badakigu jipoituak izango garela". Indidxabak taldea, behintzat, harro dago, oholtzaren gainean.

"Gure lanak plazaratzeko, traba handiak edukitzen ditugu emakumeok"

Ane Odriozola, abeslaria

"Rock astunetik, doinu dantzagarriagoetara jotzen dugu"

Helena Benet, bateria jotzailea

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Atzerrian hizkuntzak ikasteko bekak. 2018ko uda

Eusko Jaurlaritzak 533 plaza eskaintzen ditu Irlandan, Erresuma Batuan, Frantzian eta Alemanian hiru asteko egonaldi eta hizkuntzako ikastaroak egiteko 2018ko udan.

Norentzat: DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1.go eta 2. maila ikasten duten ikasleak.

Betekizunak:
- Beranduenez 2018an betetzea 19 urte.

- Aurreko ikasturtean 7 puntuko gutxieneko nota lortu izana eskatutako hizkuntza/hizkuntzetan, eta 16 puntuko edo gehiagoko puntuazio osoa lortu izana aurreko ikasturteko batez besteko notaren eta eskatutako hizkuntzako notaren arteko baturan.

- Eskatzen den plazari dagokion/dagozkion hizkuntza/hizkuntzak ikasten aritzea eskaera-dataren aurreko bi ikasturteetan (2015-2016 eta 2016-2017).

Epea: 2017ko urriaren 24tik azaroaren 23ra.

Beldur Pasabidea 2017

Ikuskizun bat da. 30 aktore amateurrek baino gehiagok elkarreraginean arituko dira bertaratzen den publikoarekin, beldurrezko eta suspentsezko pertsonaiak interpretatuz, ausartzen al zara?

Eguna: larunbata, azaroak 4.

Ordua: 18:00etatik 21:45etara.

Non: FICOBAn.

Sarreren salmenta: Urriaren 30 eta 31n eta azaroaren 2an eta 3an AMAIA KZn.17:30etatik 19:30etara.

Prezioa: 2 euro.

Geratzen diren sarrerak FICOBAN salduko dira, ikuskizunaren egunean, 17:45etatik aurrera.

Antolatzailea: Santiagoko Deabruak
www.santiagokodeabruak.es.tl

Pentsatu, Eztabidatu eta Ekin, Beldur barik jarrerarekin!

Zer da Beldur Barik jarrera?
Genero arauak urratzen dituzten portaera guztiak dira. Portaera horietan islatzen da nola neska-mutilek aurre egiten dioten, batera, kultura matxistari. Aniztasunarekiko errespetua islatzen duten portaerak dira. Beldurrik gabe, libre eta era autonomoan mugitzen garela erakusten duten portaerak dira.

Beldur Barik Jarrera! Lehiaketa

Parte-hartzea: Banaka, taldean edo ikastaldean parte hartu daiteke.

Formatua: Ikus-entzunezkoa: flashmobak, ozenki irakurritako poemak edo kameraren aurrean irakurritako hausnarketa testuak, bideoklipak, argazkiak, argazki-muntaiak, argazki-nobelak, lipdub-ak, dantza, film laburrak, animazio proiektuak, proiektu edo artelanen bideoen bidezko aurkezpenak, performance-ak, hiriko esku-hartzeak...

Lehiaketa bi kategoriatan banatzen da:
-1.go kategoria: 12-17 urte bitartekoak.
- 2. maila: 18-26 urte bitartekoak.

Epe-muga: Azaroak 13 (24:00etan).

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte

AZAROAK

1

Egitaraua:
10:45: SD Eibar - Real Union Club.
11:30: Real Sociedad - SD Eibar.
12:15: Real Union Club - Real Sociedad.
13:00: Sari banaketa.

Non?
Stadium Gal. Alboko zelaian.

Prezioa? Doan. Zozketa solidarioa: Euro 1.

2

Zer?
"Sabiduría y enigmas del mundo antiguo" hitzaldia. Piramideak, tenpluak, monolito bitxiak... nolako misterioak ezkutatzen dituzte?

Non?
Amaia KZn

Ordua?
20:15tan.

Prezioa?
Doan.

3-4-5

Zer?
ESKULAN ETA DIY AZOKA: HARRI, ORRI, AR. Eskulanak egiteko espiritua baldin baduzu eta gehiago jakin eta aparteko esperientzia bizi eta partekatu nahi baduzu, Harri-Orri-Ar da zure lekua. Azken DIY joerak eta berritasunak ikusteko, bizitzeko, usaintzeko, ukitzeko eta sentitzeko gune bat. Imajinatu ditzakezun eskulan guztiak aurkituko dituzu; erreferentziazko sortzaile nazional eta internazionalak eta sektoreko aparteko sorpresa asko. Erakusketariak, tailerrak, masterclass, hitzaldiak, azokak, erakustaldiak, lan- eta jarduera-eremuak familia osorako, apartak, hiru egunetan, Irunen.

Non? FICOBAn.

Ordutegia? 11:00etatik 20:00tara.

Prezioa? 6 euro; 8 urtera arte doan.

6

Kafe solasaldia "En el corazón de París"

Kafe solasaldia. Virginia Gil Rodríguez idazleak bere liburu berria "En el corazón de París" aurkeztuko du. Jarraian Mª Jesús Garinek, emakume irundarrak hizpide, ibilaldi historiko bat egingo du.

Ordua: 17:00.

Non: Uxoa Elkartea Gipuzkoa Hirib, 12 behea.

Prezioa: Doan.

9

XXXVIII BERTSO GAUA Bertsolariak:

- Aitor Errazkin.
- Arkaitz Oiartzabal "Xamoa".
- Patxi Castillo.
- Jokin Bergara.

Gai Jartzailea: Adrian Arruti.

Bertso Jarriak: Mikel Garmendia.

Ordua: 19:30etan.

Non: Kabigorrin.

Prezioa: Doan.

azaroaren 10etik-12ra

MUSEOMIX ESP maratoi sortazilea

Zer:
Museomix maratoi sortzailea, Oiasso Erromatar Museoan lehen aldiz ospatuko den nazioarteko proiektua. Ideien laborategi bat da Museomix, partaidetzatik, berrikuntzatik eta teknologiatik abiatuta museoa berrasmatzea asmotzat duena. Museomix komunitate ireki bat da, etorkizuneko museoa imajinatu eta sortzeko museoen eta teknologiaren profesionalek eta zaleek osatua.

.

Ordutegia: 10:30-13:30 eta 15:00-20:00.

Non: Oiasso Erromatar museoan.

Izena emateko:
https://form.jotformpro.com/72435651064959.

azaroak 22ra arte

"A fuego lento" argazki erakusketa

Zer: Alvaro Del Val Tobalinaren "A fuego lento" argazki erakusketa.

Non: Caser Anakan, Anaka kalea 8.

Ordutegia:
- Astelenetik ostiralera: 8:00-20:00; Larunbatak, igandeak eta jai egunak: 10:00-20:00.

Telefonoa:
943667780

Prezioa: Doan.

abenduak 2ra arte

Patricia Arteagaren erretratu erakusketa

Zer: 1973ko martxoaren 17an jaioa, Santa Cruzen (Bolivia). "Txikitatik margolaritzarekiko egonezinak eta neska txiki bat izanik ikusi izandako Barquito de papel telesailak, margotzea denborapasa bat baino zerbait gehiago zela ikusarazi zidan. Orain, margolaritza amets bat, ilusio bat izatetik errealitate izatera pasako da nire lehen erakusketarekin".

Ordutegia:
Osteguneti larunbatera 19:00etatik aurrera / igandeetan 17:00etatik aurrera.

Non:
Kabigorrin.

Prezioa: Doan.



Irekiera berria

SAKURA

Buffet Menua

astelehenetik ostiralera
12:00etatik 16:00etara (jai egunetan izan ezik)

13,95€

astelehenetik ostiralera
20:00etatik 24:00tara (jai egunetan izan ezik)

18,95€

8 urtetik behera **8,95€**
(3 urtetik behera doan)

Larretxipi, 10 20304 IRUN
Tel 943 61 53 30